

## **VITORIA-GASTEIZKO ADIERAZPENA**

**2017KO IRAILAK 30**

Vitoria-Gasteiz hirian batzarturik "Bakea eta Askatasuna Saharar Herriarentzat" taldearteko parlamentarioen XXI. Konferentzia dela bide, Eusko Legebiltzarraren egoitzan, 2017ko irailaren 30ean, eta 14 legebiltzar autonomiko bertan direla, berriro egiten dugu geure konpromisoa saharar herriaren askatasunezko etorkizunarekin, eta hau ematen dugu aditzera:

Gogorarazi eta berretsi egiten ditugu taldearteko parlamentarioek aurretik egindako konferentzietan iritsitako akordio garrantzitsuak, eta berriro baieztatzen ditugu hurrenez hurren onetsitako adierazpen guztiak, bereziki 2016an Donejakue Compostelakon onetsi genuena, adierazpen horietan besteak beste erreklamatu egiten baikenuen, ez bairik txikiena ere gabe eta Nazio Batuen ebazpenetan oinarriturik, bai eta Nazioarteko Zuzenbidearekiko errespeturik zorrotzenetik ere, saharar herriak erreferendum bidez autodeterminatzeko duen eskubide legitimoa, azken urrats gisa aspaldiko hamarkadetan burutzeke dagoen deskolonizazio-prozesuan.

## **DECLARACIÓN DE VITORIA-GASTEIZ**

**30 DE SEPTIEMBRE DE 2017**

Reunidos en Vitoria-Gasteiz con motivo de la XXI Conferencia de los Intergrupos parlamentarios "Paz y libertad para el Pueblo Saharaui", en la sede del Parlamento Vasco, el día 30 de septiembre de 2017, y con la presencia de 14 parlamentos autonómicos, renovamos nuestro compromiso con el futuro en libertad del pueblo saharauí y manifestamos lo siguiente:

Recordamos y reiteramos los importantes acuerdos alcanzados en las anteriores conferencias de intergrupos parlamentarios y nos reafirmamos en las sucesivas declaraciones aprobadas, especialmente en la aprobada en 2016 en Santiago de Compostela, en las que, entre otras cuestiones, se hacía una reclamación inequívoca y fundamentada en las resoluciones de Naciones Unidas y en el más estricto respeto al Derecho internacional, del legítimo derecho del pueblo saharauí a su autodeterminación mediante referéndum, como último paso al proceso de descolonización que persiste desde hace décadas.



Berriz ere salatzen dugu Marokoren presentzia Mendebaldeko Saharan ez dela legezkoa eta ezin izan dezakeela ondorio juridiko edo politikorik saharar herriak autodeterminazio eta independentziarako duen eskubidearen kaltetan.

Oroitarazten dugu hainbat misio parlamentarioren lana, zeinetan egiaztatu baititugu urraketa larriak, lurralde okupatuetan, adierazpen-, biltze-, elkarte- eta manifestatze-eskubideei dagokienez Saharako herritarren kontra, horrek exijitzen duelarik Nazio Batuen ebazpenak betetzea eta giza eskubideen errespetua.

Baieztatzen dugu Fronte Polisarioa dela saharar populuaren ordezkari legitimoa eta bakarra, NBEak eta nazioarteko erkidegoak aitortzen duten bezalaxe.

Izugarri positibotzat jotzen dugu Justiziako Europar Auzitegiaren epaia, deklaratu zuelarik ezen Mendebaldeko Sahara ez dela Marokoko Erresumaren parte, horrek esan nahi duela Europar Batasunaren eta Marokoren arteko ezein merkataritza-akordiorik ezin dakiokela aplikatu Mendebaldeko Saharari, eta ez dagoela inolako merkataritza-jarduerarik ezartzerik, ez bere baliabide naturalak esportatzerik, saharar herriaren oniritzi gabe.

Helarazi egiten diegu geure sostengua, atxikimendua eta elkatasuna Gdeim Izik-eko presoek, bidegabeko zigorrak jaso dituztenei legez kontrako prozesu berme gabe batean, eta haien berehalako askatzea exijitzen dugu.

Denunciamos, de nuevo, que la presencia marroquí en el Sahara Occidental no es legal y que no puede tener efectos jurídicos o políticos que menoscaben el derecho del pueblo saharauí a la autodeterminación e independencia.

Recordamos el trabajo de distintas misiones parlamentarias, en las que hemos constatado graves vulneraciones en los territorios ocupados de los derechos de expresión, reunión, asociación y manifestación hacia la población saharauí, que exige que se cumplan las resoluciones de Naciones Unidas y el respeto a los derechos humanos.

Afirmamos que el Frente Polisario es el legítimo y único representante del pueblo saharauí, así reconocido por la ONU y la comunidad internacional.

Valoramos como altamente positiva la sentencia del Tribunal Europeo de Justicia que falló que el Sahara Occidental no forma parte del Reino de Marruecos, lo cual significa que ningún acuerdo comercial entre la Unión Europea y Marruecos es aplicable al Sahara Occidental, y que no se puede establecer ninguna actividad comercial, ni exportar sus recursos naturales, sin el consentimiento del pueblo saharauí.

Trasladamos nuestro apoyo, afecto y solidaridad a los presos de Gdeim Izik, que han recibido injustas condenas en un proceso ilegal y sin garantías, y exigimos su inmediata liberación.

Afrikako Batasuna babesten dugu duen eginkizun handian Mendebaldeko Sahaharen gatazkaren konponketan.

Taldearteko parlamentarioen Konferentzia honetan aztertu dugunari jarraikiz, eta esijentzia-mailarik handiengan, hau erabaki dugu:

-Egiaztatzea Mendebaldeko Sahara dela lurralde ez-autonomo bat Nazioarteko Zuzenbidearen mende dagoena, ez dena sekula Marokoko Erresumakoa izan, eta horregatik esijitzen dugu bertan behera gera dadila Mendebaldeko Sahararen legez kontrako okupazioa, eta saharar herriak autodeterminatzeko duen eskubidea gauzatzea.

-Halaber, oso positibotzat balioestea Entzutegi Nazionalaren autoa juzkatzen duelarik Espaina dela Mendebaldeko Sahararen "potentzia administratiboa de iure".

-Marokoko Erresumari esijitzea berehala aske uzteko Saharako preso politikoak eta kontzientziakoak eta eten daitezela giza eskubideen bortxaketak Marokok kontrolatzen dituen presondegietan, presoek osotasun fisiko eta psikikoa bermatuz.

-Nazio Batuei eskatzea sustatu dezala gehiago luzatu gabe konponketa justu eta behin betikoa Mendebaldeko Saharako gatazkarentzat, konponketa horretarako ezinbestekoa delarik praktikara eramatea saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea erreferenduma eginez.

Apoyamos a la Unión Africana en su importante papel en la resolución del conflicto del Sahara Occidental.

De acuerdo con lo tratado en la presente Conferencia de Intergrupos parlamentarios, y en el máximo nivel de exigencia, acordamos:

-Constatar que el Sahara Occidental es un territorio no autónomo sometido al Derecho internacional que nunca ha pertenecido al Reino de Marruecos, y por ello le exigimos que cese la ocupación ilegal del Sahara Occidental y el ejercicio del derecho del pueblo saharauí a la autodeterminación.

-Asimismo, valorar como muy positivo el auto de la Audiencia Nacional que se pronuncia sobre España como "potencia administrativa de iure" del Sahara Occidental.

-Exigir al Reino de Marruecos que se produzca la inmediata liberación de los presos políticos y de conciencia saharauís y cesen las violaciones de derechos humanos en las prisiones que controla, garantizando la integridad física y psíquica de los presos.

-Instar a Naciones Unidas a que promueva sin más dilación la solución justa y definitiva del conflicto del Sahara Occidental, solución que pasa por llevar a la práctica el derecho de autodeterminación del pueblo saharauí mediante la celebración del referéndum.

-Salatzen jarraitzea Marokoko Gobernua Mendebaldeko Saharako baliabide naturalekin egiten ari den espoliazioa, eta exijitzea zonan diharduten enpresei Nazioarteko Zuzenbidea errespetatzea bai eta saharar populazioaren eskubideak ere.

-Berrestea, gure iritziz, ikusiaz Mendebaldeko Saharak bizi duen egoera larria, Minurso handitu egin behar dituela bere eginkizunak eta eginbeharrak Mendebaldeko Saharan. Horregatik, Nazio Batuei eskatzen diegu eman diezaiotela misioari ahalmena lurralde okupatueta saharar herritarren giza eskubideak begiratzeko eta zaintzeko.

-Jarraitzea Europar Batasunari exijitzen aurrera eraman dezala Marokoko Erresumarekin sinatutako Lehentasunezko Akordioan jasotako giza eskubideekiko errespetuari buruzko klausula.

-Zorionak ematea Saharar Emakumeen Batasun Nazionalari (UNMS) errefuxiatuen eremuetan egiten diharduten eginkizun ausart eta irmoagatik. Eta aldi berean dei bat zabaltzea euren ikusezintasun-egoeraren inguruan, giza eskubideen bortxaketaren biktimak izaki. Aipamen berezi bat egiten dugula lurralde okupatuetan desagertutako emakumeekiko.

-Eskatzea Estatu espāñoleko erakunde publikoei jarrai dezatela laguntzen, laguntza hori areagotuz ahal dela, nola Tindufeko kanpamentuetan errefuxiatutako herritarrei hala lurralde okupatueta biztanle sahararrei ematen zaien babes solidario eta humanitarioaren bitartez.

-Continuar denunciado el expolio de los recursos naturales en el Sahara Occidental por parte del Gobierno de Marruecos, y exigir a las empresas que operan en la zona el respeto al Derecho internacional y a los derechos de la población saharauí.

-Reiterarnos en la consideración de que, a la vista de la grave situación que se vive en el Sahara Occidental, la Minurso amplíe sus funciones y cometidos en el Sahara Occidental. Por ello instamos a Naciones Unidas a que dote a la misión de la potestad para la vigilancia y salvaguarda de los derechos humanos de la población saharauí en los territorios ocupados.

-Seguir exigiendo a la Unión Europea que haga efectiva la cláusula de respeto a los derechos humanos establecida en el Acuerdo Preferencial con el Reino de Marruecos.

-Felicitamos a la Unión Nacional de Mujeres Saharaus (UNMS) por el papel valiente y decidido que desarrollan en los campos de refugiados. Y a la vez hacer un llamamiento en relación con su situación de invisibilidad, víctimas de la violación de los derechos humanos. Con especial referencia a las mujeres desaparecidas en los territorios ocupados.

-Instar a las instituciones públicas del Estado español a continuar, e incrementar si cabe, el apoyo solidario y humanitario tanto a la población refugiada en los campamentos de Tinduf como a los habitantes saharauis de los territorios ocupados.

Taldeartekoen Konferentzia, jabeturik Espainiako Estatuak erantzukizun historiko, legal eta politikoa duela Mendebaldeko Sahararen egoerarekin, berriz ere deitzen dio Espainiako Gobernuari:

-Marokoko Erresumari eskatu diezaion zorrozki errespetatu ditzala giza eskubideak Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan eta amaitu ditzala saharar populazioak jasaten dituen eskubide-urraketak. Eta era berean eskatzen dio lan egin dezala aktiboki, Europar Batasunaren barruan, Minursok, orain dauzkan funtzioez gain, bere esku har ditzan, halaber, Mendebaldeko Saharan giza eskubideen konplimendua begiratzea eta zaintzea ere. Entzutegi Nazionalaren autoa ere azpimarratu beharra daukagu, gogora dakarrena Espainiaren oraingo erantzukizuna potentzia administratzaile gisa.

-Estatus diplomatikoa eman diezaiola Fronte Polisarioaren Espainiako ordezkariari, saharar herriaren ordezkari bakar eta legítimo gisa, hala errekonozitu baitu Nazio Batuen Erakundeak. Halaber, RASD errekonozitu dadila. Arlo diplomatikoan gaitzetsi egiten dugu Peruko agintariak RASDeko enbaxadorea, Jadiyah El Mothar, kanporatu izana.

-Beharrezko ekimen politikoak sustatu ditzala, konponbide justua eta behin betikoa lortzera zuzenduak, saharar herriak bere autodeterminaziorako daukan eskubide legítimoaren alde, erreferendum libre eta erregular baten bidez, bukatzeke dagoen deskolonizazio-prozesuaren azkeneko urrats gisa.

La Conferencia de Intergrupos, consciente de la responsabilidad histórica, legal y política que el Estado español tiene con la situación en el Sahara Occidental, reitera el llamamiento al Gobierno de España para que:

-Exija al Reino de Marruecos el escrupuloso respeto a los derechos humanos en los territorios ocupados del Sahara Occidental y el cese de las vulneraciones de derechos que sufre la población saharauí. Y así mismo le insta a que trabaje activamente, en el seno de la Unión Europea, para que la Minurso vea ampliadas sus funciones también a la vigilancia y salvaguarda del cumplimiento de los derechos humanos en el Sahara Occidental. Debemos hacer constar el auto de la Audiencia Nacional, que recuerda la responsabilidad actual de España como potencia administradora.

-Otorgue un estatus diplomático a la representación del Frente Polisario en España, como único y legítimo representante del pueblo saharauí, así reconocido por la ONU. Asimismo, a que se reconozca a la RASD. En el terreno diplomático mostramos nuestro rechazo a la expulsión de la embajadora de la RASD, Jadiyah El Mothar, por parte de las autoridades peruanas.

-Promueva las iniciativas políticas necesarias, encaminadas a lograr una solución justa y definitiva, en defensa del legítimo derecho del pueblo saharauí a su autodeterminación, mediante un referéndum libre y regular, como paso final al proceso de descolonización inacabado.

-Areagotu dezala saharar populazioarekiko lankidetzak eta laguntza humanitarioa, nola errefuxiatuen kanpamentuetan hala lurralde okupatuetan, kezka egiaztatzen ari garelako gutxitzen ari direla azken hiru urtean Lankidetzarako Espainiar Agentziaren ekarpenak. Halaber, bultzatzea dabil Europa diru gehiago ematea Mendebaldeko Saharari.

-Berrikus ditzala sahararrek espainiar nazionalitatea lortzeko baldintzak, nazionalitate hori lortu ahal izan dezaten nazionalitate-hitzarmenak dauzkaten herrialdeetako beste nazional batzuei emateko eskatzen zaizkien baldintza beretan.

Azkenik, Taldeartekoen XXI. Konferentziak, Espainiako gizartearen eginkizunari dagokionez, hauxe adierazi nahi du:

Babes kartsu bat "Oporrak Bakean" programari, urtero egiten denari, eta geure esker ona hori posible egiten duten milaka eta milaka familiei; dei egiten diegu, bide batez, antolakunde eta entitate ofizialei saharar neska-mutilei zuzendutako programa eredugarri hori indartzera.

Hedabideei eskatzen diegu aritu daitezela Mendebaldeko Saharako gatazkari buruz Espainiako gizartean ematen dion garrantzia eta inportantzia berarekin. Eta animatu egin nahi ditugu hainbeste eta hainbeste pertsona solidario sare sozialen bitartez ezagutzera eman eta salatu dezatela Mendebaldeko Sahararen egoera.

-Aumente la cooperación y la ayuda humanitaria a la población saharavi, tanto en los campamentos de refugiados como en los territorios ocupados, al constatar con preocupación la reducción de las aportaciones de la Agencia Española de Cooperación en los últimos años. Asimismo, que se incida en el aumento de los fondos europeos para el Sahara Occidental.

-Revise las condiciones de acceso a la nacionalidad española de las personas saharavis, para que puedan obtenerla en las condiciones en que se otorga a otros nacionales de países con convenios de nacionalidad.

Por último, la XXI Conferencia de Intergrupos, en relación con el papel de la sociedad española, quiere manifestar lo siguiente:

Un apoyo entusiasta al programa "Vacaciones en Paz" que todos los años se lleva a cabo, y un agradecimiento a las miles de familias que lo hacen posible, haciendo un llamamiento a organizaciones y entidades oficiales a reforzar ese ejemplar programa destinado a los niños y niñas saharavis.

Invitamos a los medios de comunicación a que traten el conflicto del Sahara Occidental con la misma importancia y relevancia que le confiere la sociedad. Y animamos a tantas personas solidarias a que a través de las redes sociales difundan y denuncien la situación del Sahara Occidental.

Jabetu egiten gara gero eta garrantzi handiagoa dutela RASD Telebisi3n-ek, Radio Nacional Saharai-k, Agencia Saharai de Noticias-ek eta gainerako komunikabideek saharar herriaren egoera eta haien helburu legitimoak zabaltzen.

Konpromisoa hartzen dugu errazteko gure parlamentuen harreman instituzional eta politikoak Saharako Parlamentuarekiko.

Eskatzen diegu unibertsitate-, judikatura-, politika- eta administrazio-esparruei lanean jarrai dezatela Mendebaldeko Saharan giza eskubideen aurka egindako urraketak argitze aldera.

Gure esker ona adierazten diegu saharar herriarekiko adiskidetasunak bat eginik egunero-egunero lanean diharduten elkarte, federazio eta elkartasun- eta gizarte-kolektiboei, ez baitute beste xederik herri senide honentzako askatasunezko geroa erdiestea baino. Alde horretatik, goresgarri deritzogu IAJUWS – Juristen Nazioarteko Elkartearen lanari.

Taldearteko parlamentarioek lehentasunezko lan gisa jartzen dugu sostengu ematea lurralde okupatuetako saharar populazioari. Horregatik, behaketa-misioak bidaltzen jarraituko dugu 2017an eta 2018an. Konpromisoa hartzen dugu, orobat, taldeartekoen ordezkari batzuek parte har dezan Eucocoren 42. edizioan eta topaketa parlamentarioan, egitekoak baitira urriaren 20an Parisen eta urriaren 21 eta 22an Vitry sur Seinen. Baita Estrasburgon egingo den hurrengo konferentzia parlamentarioan parte hartzeko ere.

Constatamos la importancia en aumento que RASD Televisi3n, Radio Nacional Saharai, la Agencia Saharai de Noticias y los dem3s medios de comunicaci3n tienen en la difusi3n de la situaci3n del pueblo saharai y de sus leg3timas aspiraciones.

Nos comprometemos a facilitar las relaciones institucionales y pol3ticas de nuestros parlamentos con el Parlamento saharai, y a celebrar acuerdos y convenios de colaboraci3n interparlamentaria.

Instamos a los 3mbitos universitarios, judiciales y pol3tico-administrativos a seguir trabajado por el esclarecimiento de las actuaciones contra los derechos humanos ocurridas en el Sahara Occidental.

Expresamos nuestro agradecimiento a las asociaciones, federaciones y colectivos solidarios y sociales que trabajan d3a a d3a unidos por la amistad con el pueblo saharai y cuyo 3nico fin es lograr un futuro en libertad para el pueblo hermano. En ese sentido, consideramos encomiable el trabajo de la Asociaci3n Internacional de Juristas (IAJUWS).

Los intergrupos parlamentarios establecemos como trabajo prioritario el apoyo a la poblaci3n saharai de los territorios ocupados. Por ello, seguir3n envi3ndose a lo largo de 2017 y 2018 misiones de observaci3n. Nos comprometemos, asimismo, a que una representaci3n de los intergrupos participe en la 42 edici3n de la Eucoco y en el encuentro parlamentario, que se celebrar3n los pr3ximos d3as 20 de octubre en Par3s y 21 y 22 de octubre en Vitry sur Seine. Y a la asistencia a la pr3xima conferencia parlamentaria que se celebrar3 en Estrasburgo.

Vitoria-Gasteizko Adierazpen hau bidaliko zaie Nazio Batuen idazkari nagusiari, Errege Etxeari, Espainiako Gobernuari, Europako Batzordeari, Fronte Polisarioren Espainiako delegazioari, Marokoko Gobernuari, Espainiako Kongresuari eta Senatuari, eta legebiltzar autonomikoei.

La presente Declaración de Vitoria-Gasteiz se remitirá al secretario general de Naciones Unidas, a la Casa Real, al Gobierno de España, a la Comisión Europea, a la delegación del Frente Polisario en España, al Gobierno de Marruecos, al Congreso y Senado de España, y a los parlamentos autonómicos.